

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 235. alea - 2018ko abendua

## Ikasle gazteen ipuin lehiaketak baditu irabazleak





ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

# IZERBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otaratekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



**kutxabank**



**Haztik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
tel.: 943 02 99 63  
e-mail: haztik@gmail.com



**Calbeton**  
JATETXEA

**Agustín Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**ASESORIA DEBA C.B.**  
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127  
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482



**ITXAS GAIN**  
Taberna  
ITXAS GAIN


Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA



**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



**URDAITEGIA**  
**AITTOLA**  
HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA



**Seven Clovers**  
Irish pub


943 191 295



**AUKERA**  
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**Bar LOREA**

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

235. alea - 2018ko abendua

# AURKIBIDEA

## 10

### EUSKARALDIA

Amaitu da Euskaraldia ariketa soziala, baina bide baten hasiera besterik ez da izan



## 11

### ALBISTEA

Abenduaren 26tik 29ra bitartean egingo da Debako XI. Animazio Zinemaldia



## 12

### ELKARRIZKETA

Ezten Giro Erromeri Taldea, "Euskal Herriko plazak astintzen" jarraitzeko prest



## 14

### ALBISTEA

Foru Aldundiak dio martxoan zabalduko dutela oinezkoen pasabidea



## 16

### LITERATURA

Zuhatza elkarteak eta Mendatak antolatutako ipuin lehiaketak baditu irabazleak!



## BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba  
Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

### ARGITARATZAILEA

**Zuhatza**  
euskara elkarteak Deba

### LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) druz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarteak. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Erredakzio taldea

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Koldo Aperribai

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria


**Inprimategia:** Euskalinpri

**Lege gordailua:** SS-246-2009

ISSN 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

## Eskerrik asko!

Hiart Compañon Aldalur “debar-elgoibartarra” naiz. Pasatu da denbora nire mezua sare sozialetan eta beste komunikabide batzuetan zabaldu zenetik eta orain eskerrak emateko ordua iritsi da.

Lehenik eta behin gure familiari, gau, egun eta momentu oro euren maitasun osoz babesteagatik. Nire kuadrillari, lankideei eta lagun guztiei, egune-

ro bidalitako mezu, dei, bideo eta abarrek transmititutako indar eta maitasunarengatik.

Elgoibar, Mendaro, Deba, Eibar eta beste hainbat herritako jendeari, erakutsi duen enpatia, maitasun eta errespetuarengatik; eta noski, jende horrek guztiak sorturiko “zurrunbiloarengatik”.

Nola ez, gure lehengusina Miren Otal Astigarragari, gure mezua lau hai-

zetara zabaltzeagatik.

Azkenik, Donostiako ospitaleko hematologia sailean lan egiten duen talde guztiari: mediku talde, erizain, erizain-laguntzaile eta gainontzeko langile guztiei, eurengandik jasotako tratu goxo eta bereziarengatik.

*Hiart Compañon*

## Txostenak, alderdiak, auzotarrak

Azaroaren 15ean Debako plenoak “Itziarko Toki Entitate Txikiaren aldaketa txostena” onartu zuen, gehiengoarekin. Publiko artean udaletxeko batzar aretoan ginenok gutxieneko debate mailarik gabe bozkatutako erabakiaren testigu izan ginen. Uste dugu ez dela itxurazkoa horrelako proposamen garrantzitsu bat unean uneko komentuziaz ezartzea, gizartearen parte-hartzerik gabe, eta aurretik informazioa zabaldu gabe. Pleno aretoan ginen gehienok garbi ikusi genuen oinarri-dun arrazoirik ez duela erabaki horrek eta, honaino iritsita, alderdikieriaz egin nahi duela aurrera udal gobernuak.

Betiko susmokeriak entzun ahal izan genituen agintarien ahotik, txosten berri hori justifikatu nahian. Debako udalerriaren etorkizuna babesteko neurri bat dela, eta horrelakoak. Batetik industrialdea eta bestetik Arriola eta Egia auzoak Itziarko Auzo Udaletik ateratzea proposatzen du txostenak, murrizketa gehiagoren artean. Modu

horretan, Debako hirigunearen garapen urbanistikoa bideratzen omen da etorkizunerako, eta industrialdearen kontrola ere bai. Harrigarriak dira halako deklarazioak. Aizue, irakurri al duzue 2015etik indarrean den Itziarko Toki Entitate Txikiaren Arau Forala? Izan ere, bertan argi jartzen du bai urbanismo alorra eta bai industria Debako Udalaren konpetentzia direla, hau da, Itziarko Auzo Udalak ez duela alor horietan ahalmen propiorik. Orduan, jendea nahastu nahian al zabilzate?

Hala ere, amorragarriena iruditu zaigu horrelako erabakia hartzen ausartzea Arriola eta Egia auzotarrok harremanetan jarri ere egin gabe eta batere informatu gabe; hain zuzen ere, auzotarron bizimodu eta egunerokoan eragin zuzena izan dezakeen funtzionamenduaz ari garenean. Non dira hainbeste azpimarratutako parte-hartzea, transparentzia eta ejemplu demokratikoa? Gainera, inongo alderdi poli-

tikoen programan ez zen ageri aurkeztutako eredu berri hau.

Egia eta Arriolako auzotarrok itziartartzat dugu gure burua, lehenetik. Bertan daukagu medikua, bertan ematen dugu botoa hauteskundeetan, bertara eramaten ditugu eskolara ume txikiak. Eta horrela zerbitzu eta harreman gehiago, xumeak badira ere, azken urteotan auzo udalaren bitartez hobetu direnak. Era berean, Deban ditugu zerbitzu nagusiagoak eta Debara goaz errekaduak eta tramiteak egitera edo buelta bat ematera, ondo dakigulako, administratiboki, Deba dela udalerria, eta ez daukagu horrekin arazorik. Uste dugu guk hain garbi daukaguna halaxe ikusten duela jende gehienak gaur egun. Hortaz, zertara dator zentzuzgaberia hau orain?

*Xabier Salegi Agirregabiria eta  
Lourdes Albizu Barrenetxea  
(Arriolako biztanleak)*

## Zatoz Olentzerori eta Mari Domingiri harrera egitera!

Abenduaren 24an, eguerdian, urteroko hitzordua izango dugu Deban. Olentzero eta Mari Domingi datozkiagu, euren astoaren konpainian. Azken eskutitzak jaso aurretik, herritarrak agurtu eta kalejiran ibiliko dira -plaza zaharretik abiatuta-. Indarrak berresku-

ratze aldera, salda eta ogitarteko postua ere egongo da gero Foruen plazan.

Hitzordua txukun-txukun irten dadin, herriko elkarte eta norbanako ugari elkarlanean dabilta antolakuntza lanetan eta herritarren parte-hartzea eskatu dute. Gonbidatuta zaudete,

beraz, guzti-guztiok Olentzerori eta Mari Domingiri harrera beroa egitera. Eguberri on!

*Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko lantaldea*

## Bakegintza eta elkarbizitzaren bidean: Orain presoak!

“Bakegintza eta elkarbizitzaren bidean: Orain Presoak!”. Horra Euskal Herriak, bere aniztasunean, nahi eta behar duen bide-orria, bi estatuei berriro eskatuko zaiena urtarrilaren 12an. Bilbon eta Baionan esanen dugu bakearen bidea alde guztien eginkizuna dela: jendartearena bere aniztasunean, elkarreana, eragile politiko zein instituzionalena eta, noski, estatuena.

Aktore guztien eginkizuna da eta, nahiz eta giltza nagusia estatuen esku egon, gizarte zibilak ere badu egoera aldatzeko bere eginkizuna.

Presoen alde, ORAIN, egin behar dira urratsak; prozesuaren abiadura aldatu beharra dago. Urgentziazko garaian sartuak gara! Presoen auzia konpontzeko unea etorria da! Salbuespen neurriak kendu behar dira, giza eskubide arruntak errespetatzea delako, gaurko egoera politiko berriak eskatzen duelako, eta bake orokor eta integral baten oinarria delako! Eta bihar, marko juridiko berri bat beharko

dugu, bake prozesuari egokitua.

Orain arte egin diren alde bakarreko urratsek erantzuna eskatzen dute bakearen dinamika elikatzeke. Gaur eman behar diren pausoak ez emateak balioa kendu ahal diete atzo egin ziren urratsei... Ezinbestekoa da konfirmatzea orain arte egin dena egin behar zela eta ona zela bakearentzat! Bidea hortik doa. Eta hortik urratu behar dugu iraganetik etorkizunerako trantsizio hori...

Iraganaz ezer baztertu eta ahaztu gabe egin behar dugu bidea. Indarkeria guztien biktima guztiei zor diegu egia, errespetua eta errekonozimendua. Zor diegu iragana ez errepikatzea, eta horretarako lan egitea, edozein, edozelakoak izanik ere gure arteko ezadostasunak.

Aspaldiko urteetan posible izan ez zen elkarbizitza demokratikoa azkenean posible ikusten da gure herrian! Orain arte batu ahal izan ez garenon ariketa kolektiboa izanen da! Eginbide

horrekin, esperantza horrekin, zorrotasun horrekin, guztientzat ona izanen den bakea eraikiko dugu. Egun bakoi-



tzak kontaktzen du. Bakoitzaren inplikazioa beharrezkoa da.

Hori dela eta, datorren urtarrilaren 12an (larunbata) Debatik eta Itziartik manifestaziora autobusean joateko aukera egongo da, eta izen-ematea ohiko lekuetan izanen da.

Elkarbizitzarako prozesu horretan, ORAIN PRESOEN etapa izan behar da! Animatu!

*Debako Sare*

## Zikinaren logika

ETBkoak atez atekoaren inguruan galdezka, arrandegi batean, Hernanin: "uuii, gu oso gustura, segituan ohitu gara". Arrandegiko langileak: "beldurra genuen hemengo hondakinekin nola egingo genuen, baina beraiek pasatzen dira...". Neurri polemikoa izan zen benetan, eta denak gustura!

Abian jarri eta urtebetera Usurbilen egin zuten galdeketa. Gehiengo alde eta jarraitzeko gogoz.

"Zabortegeiek ito ez gaitzaten zerbait aldatu beharko da, bai ala bai" zioten adituek. Beraz, askok gogotsu begiratzen genion ordura arteko birziklatze-tasarik onenak erakutsi zituen bilketa-sistemari: atez atekoari.

Baina laster, gure begirada goialdeek erakarri zuten: balkoiek. Lehenengo Bergarako balkoietan zintzilik jarri zituzten zabor-poltsek, gutxika, Deban ere, perretxikoak bailiran, etxe fatxadetan ugaldtu zirenek. Atez atekoaren aurkakoak omen. "Joño, hauek orain arte bezala jarraitu nahi al dute? Baina apustu egingo nuke ez dutela Deba inguruetan zabortegei edo erraustegirik nahi. Lehenago, 70eko hamarkadaren amaieran, antzekorik bizi izan genuen euskal kostalde nuklearraren proiektuarekin, eta haren aurka Deban piztu zen mugimendua oso indartsua izan zen!".

Abanikoa zabala zela jakin genuen laster, aukerak ia Udalak beste, eta balkoietako zintzilikarioenak txip-dun edukiontziak jartzeko sistemaren alde zeudela, denaren kontra ez zeudenak bai behintzat.

Gure Ni Onbera, giza espeziarenganako konfiantzaren defendatzaile sutsua, bistatu zitzaigun orduan, kontrol-estua-eta-zigorak-beti-ez-dira-beharrezko bere diskurtsoarekin, bere betiko barre



xaloarekin, naif-naif: "guztiok nahi dugu onena herriarentzat, giza talde batzuek zailago dute ordea, etab., etab., etab., txiparen sistema atez atekoaren kopuruetara hurbiltzen da, kopuruok berdintzen ez baditu, hala diote, eta nolabaiteko kontrola ere badakarte, gainera... etab. etab.".

**"Ez dugu ikusten orain zabor-mendi hauekin askorik asaldatu zaretenik. Edo bai!? Oraingoan, aldiz, irtenbideetarako presarik ez"**

Galdeketa egin eta edukiontzia+txipa sistemak irabazi. Jendea gustura sumatzen da, herritarren nahia ondo bete da. Ea orain edukiontziak ere ondo betetzen diren! Gure Ni Onberak ilusio izpi-erdi bat piztu digu berriro. Aurrera begiratu dugu konfiantzaz, azken batean, beti bezala, historia denborak idatziko du.

Eta idatzi du, baina ez desio genuen moduan, eta ondo ilustratu ere bai,




hemen erakusten dizkizuegun irudiekin, gaur bai eta bihar ere bai Osion eta herriko beste edukiontzi-guneetan ikusten dugunarekin.

Halako batean, ni xaloa desagertu zaigu, buruan sortzen ari zaizkigun mila galdera ilunek zokoratuta. Bat-batean, lur-hartze moduko bat, badator esku ikusezin bat nonbaitetik guri begietako amarauna kentzera: Udaleko arduradunok Deba txukun eta garbiaren leloa hartu zenuten hasieratik ahotan, baita (Zumaiako Erribera kaleko horma famatuan bezala) horma-irudiak ezabatu ere, Udalean sartu bezain pronto, garbitasunari zor. Ez dugu ikusten orain zabor-mendi hauekin askorik asaldatu zaretenik. Edo bai!?, oraingoan, aldiz, irtenbideetarako presarik ez. Non da, bestalde, txipak zekarren kontrol hura?

Ez al da izango hainbesteko ezinegona eragiten zizuen "zikina" ez zela hormak desitxuratzen zituzten margoena, koloreek janzten zuten mezuarena baino?

*Leonor Sololuze, Nagore Dorronsoro, Rosa Morcillo, Iera Zubikarai, Itziar Gonzalez, Ekaitz Solabarrieta eta Nerea Elu*



## 100 lagun baino gehiago Kolore Anitz Egunean!



Pirritx eta Porrotxen abestiak dioen bezala, "hau poza zuri, berde, more, hori, ...!".

Ezin hasi idatzi hau Kolore Anitz egunean parte hartu zenuten guztioi esker onak eman gabe! Izen-ematea hasi baino lehen, ez genuen uste hainbeste jende animatuko zenik eta ia 100 lagunek eman zenuten izena jolasean parte hartzeko. Horiez gain, azaroaren 24an bertan ere haur gehiago hurbildu zitzaizkigun eta, hortaz, 100dik gora izan zineten parte-hartzaileak! Guretzako sorpresa ikaragarri polita eta positiboa izan da, bai horixe!

Haur eta guraso ibili ziren kaleetan gora eta behera eta ezin uka daiteke irribarre handi bat jantzita zutela guztiek. Ondorioz, ekintza berriak

egiteko indarrez bete gaituzue eta espero dugu hurrengoan ere horrela izatea!

Parte hartu zuten gurasoei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, laguntza handia emateaz gain, oso positiboa iruditzen baitzaigu seme-alaba eta gurasoen arteko harremanak sendotzeko eta, ziur egon, zuen haurren oroitzen betirako geratuko den gauza txiki horietako bat izango dela. "Zein ondo pasatzen genuen Kolore Anitzen gurasoekin jolasean...". Beraz, zuei ere txalo zaparrada erraldoi bat begirale guztion partez. "Hau poza! Etxera noa ni, bidean kantu kantari!". Eskerrik asko!

Zuhatza Kolore Anitz  
Aisialdi Taldea

## "Gabonetan Deban erosi eta irabazi!" kanpaina abiatu du Debalai elkarteak

Urtero bezala, Debalai Debako Merkataritza eta Ostalaritza Elkarteak gabonetako erosketara eta zozketara kanpaina antolatu du. Abenduaren 15ean abiatu zen ekimena eta hilaren 28ra bitartean luzatuko da. Egun horietan, Debalai elkarteak denda eta tabernetan kontsumitzen duten bezeroek txartel batzuk jasoko dituzte eta, txartel horien bitartez, sariak lor ditzakete, zuzenean. Sariak ez diren artean, berriz, Debalai elkarteak establezimenduetako produktu eta zerbitzuez osatutako lau otarra zozketatuko dira

abenduaren 28an -irabazleek izenak elkarteak saltokietan, Debalai elkartearen web-orrian eta sare sozialetan argitaratuko dira-. Sariak jaso edota erabiltzeko azken eguna urtarrilaren 10a izango da.

Herriko merkataritza sustatzea bilatzen du ekimenak. Herriarrak herrian erosi eta bizitzera animatzen ditu Debalai elkarteak, tokian tokiko kontsumituz eta herriari eutsiz.

Animatu zaitzete parte hartzera! Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

Debalai elkarteak



NEREA ARRIZABALAGA

### Politika da, ez sentimenduak

Politika da, ez sentimenduak. Lau hitz horiek hartu nituen mantra moduan azaroaren 15eko plenoan nire barne orroa baretzeko eta saioa bukatu arte aretoan jarraitzeko. Baina kopeta egun batzuk lehenago zimurtu zitzaidan; inork lehenago nahi dugun edo zer iruditzen zaigun ere galdetu gabe, Egia eta Arriola auzoak zuzenean Debako egin nahi dituztela jakin nuenean.

Aldaketa honen zergatia? Segregazioaren mamua berriz irten da eszenara, oraino ere hauteskondeen antzerkian protagonista izateko, beldur-erarekin konpartituko du paper printzipala. Istorioan kokatzeko narratzaile batek Deba herria urbanistikoki hazten ari dela dio, baina horretarako lursail bakarrak nekazal eremu batzuetan daude ("pan pan paannn" beldurrezko filmetako piano hotsa) eta bertan bizitzea suertatzen zaien debarrek nekazal giroko "salvaje" batzuekin egingo dute topo. Horien zeregina, historikoki, lurra landu eta ingurua zaintzarekin batera herriari elikagaiak eta paisaia ederrak eskaintzea (oso labor azalduta). Lan gogorra, jai egun gutxi egiteko aukera ematen duena... eta hala ere harrotasunez betetzen zaituena, maileguan utzitako lur horiek jasotakoa baino gehiago itzultzen dutelako eta itzuliko dietelako ondorengoei ere, ganoraz zainduz gero. Murgilduta gauden aro digital eta plastikatu honetan atzerakoi kutsua duen sektorea, agian horregatik desagerrarazi nahi gaituzte batzuek.

Baina lasai, superheroiak, Debarren Ahotsak, dena konponduko du lursail horiek jauntxoan lur bilakatzeko eta denak lasai eta burua tente bizitzeko.

Ez da politika, ez da erabakitze eskubidea, inposaketa da. Fikzioa da, ala ez?



**Estibaliz Beltran de Heredia**  
Ostolaza Udal Liburutegiko arduraduna

Aurten, lehenengo aldiz jarri dugu abian irakurketa tailerra liburutegian. Guztira 6 liburu landu dira, euskaraz zein gaztelaniaz: *Jenisjoplin*, *Un hijo*, *Bihotz handiegia*, *Buda en el ático*, *Hauts haietatik* eta *Del color de la leche*. Lehenengo lau liburuen saioak Yolanda Arrietak dinamizatu ditu eta besteak, berriz, Ainhoa Aldazabalek. Harrera ona izan dute, baina datorren urteari begira taldea egonkorragoa izatea lortu nahi dugu; hortaz, dagoeneko datorren neguko zein udaberriko saioak antolatu ditugu. Asier Serranok dinamizatuko ditu saio guztiak.

16 urtetik aurrera edonork dauka aukera parte hartzeko doako jarduera honetan. Parte hartzen dutenek, besteak beste, egile eta estilo literario desberdinak ezagutuko dituzte eta iriztiak taldean partekatzeko aukera izango dute.

Jarraian daukazue datozen hilabeteetan landuko diren liburuak:

Animatu zaitezte parte hartzera eta jakin ezazue aurretiaz izena eman behar duzuela, 943192560 telefonora deituta edo [ostolaza@deba.eus](mailto:ostolaza@deba.eus) helbidera mezua bidalita.


URTE BERRI ON!!!

## Liburu artean




Otsailaren 27an  
19:00etatik 20:30era  
*"12etan bermuta"*  
Jasone Osoro  
Elkar, 2013

Dinamizatzailea: Asier Serrano




Martxoaren 27an  
19:00etatik 20:30era  
*"Las palabras andantes"*  
Eduardo Galeano  
Siglo XXI, 2015

Dinamizatzailea: Asier Serrano



Apirilaren 10ean  
19:00etatik 20:30era  
*"Baina ez lukete han egon behar"*  
Asier Osinalde  
Erein, 2017

Dinamizatzailea: Asier Serrano



Maiatzaren 29an  
19:00etatik 20:30era  
*"Ácido sulfúrico"*  
Amélie Nothomb  
Anagrama, 2007

Dinamizatzailea: Asier Serrano



## Eskualdeko industria-sektorea sustatzeko marka sortu dute



Basque Precision Technology District (BPTD) marka sortu dute, Debabarreneko industria-sektorea sustatu eta nazioarteko merkatuan eskualdearen gaitasun lehiakorren posizionamenduan laguntzeko.

Eskualdeko eragile publikoen eta pribatuen apustua da eta Debabarreneko ekintzailatza-tradizioan eta ekosistema sozioekonomikoan oinarritzen da. Ekosistema horren parte dira: bi teknologia zentro (IK4-Ideko eta IK4-Tekniker), lanbide-heziketako sei zentro, ETE-entzako berrikuntzako eta transferentzia teknologiko-

ko zentro bat (Asmaola), EHUren bi egoitza (Eibarko Ingeniaritza Tekniko Industrialaren Unibertsitate Eskola eta IMHko Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskola), eta makina erremintaren edota automobilgintzako sektore laguntzailearen balio katearen industria-kontzentrazio garrantzitsua, hurbileko zerbitzu ona emateko eta edozein fabrikazio-proiekturri aurre egiteko aukera ematen duena.

Eskualdeko zortzi udalek sustatu duten hausnarketa prozesu baten emaitza da BPTD.

## “10 bitxiak” saria eman diote Estilo dendari

Gipuzkoako Merkataritza Enpresa Sarien aurtengo edizioan saria jaso du Debako Estilo arropa dendak, “10 bitxiak” izeneko kategorian. Hain zuzen ere, Gipuzkoako merkatariek herrialdeko hamar saltoki saritu dituzte, eta Debabarreneko eskualdekoek hautatu dute Estilo, beste hainbat merkataritza, ostalari-tza eta ostatu enpresen artean.

“10 bitxiak” sariak azaroaren



14an banatu zituzten, Gipuzkoako Merkataritza Enpresa Sarien ekitaldiaren baitan.

## Gizaldek bulegoa zabaldu du Eibarren

Azaroan zabaldu ditu atea Gizalde Gipuzkoako boluntarioritza agentziaren Eibarko egoitzak eta Debabarrena osoari eskainiko dio zerbitzua aurrerantzean.

Gizaldek hogeituro urteko ibilbidea egin du eta bere zerbitzuak hedatzen jarraitzeko asmoz ireki du orain Eibarko bulegoa (Ardantzka kalea, 5 behea). Astelehenetan egoten da zabalik, 16:00etatik 18:00etara. Emailaz, telefonoz edo webgunearen bitartez ([www.gizalde.com](http://www.gizalde.com)) ere jar

daiteke harremanetan elkartearekin –Virginia Basurto da bulegoko arduraduna–.

Basurtok azaldu bezala, Gizaldek boluntarioritza sustatzea du helburu. Bide horretan, boluntario izan nahi duten pertsonak eta boluntarioak behar dituzten elkarteen arteko bitartekaritza egiteaz gain, elkarteei boluntarioritzaren inguruan lan egiteko baliabideak ere eskaintzen dizkie, hala nola difusioa eta sentsibilizazioa.



IGON MANCISIDOR

### Think BIG

Ezinbestekoa iruditzen zait helburuak jartzea bizitzako arlo desberdinetan ametsak egi bihurtzeko (kirola, giza erlazioak, maila profesionala eta abar). Mugarriak jarri bidean eta etorkizuneko etxea gaurko adreiluz osatu, pausoka baina tinko, norberaren nortasuna, eza-gutzak eta fisikoa lantzeak oraina eta etorkizuna bermatuko du; horrela, bitarteko bideak bizirik eta eboluzioan mantenduko gaitu.

Kezka eta lanez lepo gauden bizitza honetan, saiatu guztia ematen maite duzun horretan, konforme ez bazaude saiatu aldatzen (lana, bikotekidea, lagunak eta abar), gerora damutu egingo zara bestela. Ohiturek asko baldintzatzen gaituzte, besteek edo beti egiten denak. Huts egiteko beldurrik ez izan; benetako akatsa ez saiatzea da, errua besteei botatzea. Saiatzea bera arrakasta da, ekinez jarraituz lorpenak iritsiko dira berandu baino lehen.

Bidean aurkitzen diren oztopoak gainditu behar dira eta ez errenditu!, ez zaitez ardia izan, artaldearen jokamoldea kopiaturaz, inoiz baino beharrezkoagoa da zu zeu izatea, arriskatzea, erositasunetik irten eta bizitzea.

*No pain no gain*, giza harremanak, lan mundua, kirol helburuak eta abar, dedikazioa, konpromisoa, esfortzu eta lan gogorarekin kateaturik daude bai ala bai.

Ingurukoak eta batez ere maite dituzunak zaindu, lore bat bailiran gaur, bihar eta etzi. Sarritan ez baduzu ureztatzen eta zaintzen landarea zimeldu eta hil egiten da, giza erlazioak bezala.

*Think big*, pentsatu beti handira, ameslari, aukera daukagu eta hori ezin dizu inork ukatu, ez utzi inork zu zapaltzen edo gutxiesten, ahal duzu!

# EUSKARALDIA

12. eguna, 13. eguna, 14. eguna...

**Amaitu da Euskaraldia, 11 egun euskaraz ariketa soziala, baina bide baten hasiera besterik ez da izan. Mezu hori eman dute Euskaraldiaren antolatzaileek. Pozik agertu dira herritarrek eman duten erantzunarekin, eta *ahobizi* eta *belarriprest* izaten jarraitzeko deia luzatu dute.**

**“Herritarrengan gogoeta eragitea eta ohitura aldaketa zehatzak lortzea ziren aurtengo Euskaraldiaren helburuak, baina epe ertain edo luzeago batean, askoz sakonagoa eta zabalagoa izango den aldaketa bat bultzatzeko lehen urratsa izan da. Euskaraldiak jarraipena izango du”.**

Euskararen Nazioarteko Eguna eta Euskaraldiaren bukaerako ekitaldiak bat egin zuten gure herrian ere. Euskararen Nazioarteko Egunean gure hizkuntza plazaratzeko eta balioan jartzeko saiakera xumeak egin ohi dira urtero. Aurtengo abenduaren 3ak, dena den, bi aldarrikapen zekartzan: batetik, beti egin ohi den bezala, hizkuntzaren normalizazioaren aldarrikapena; bestetik, Euskaraldiaren 11. eguna (bukaerakoa) zela gogorarazi eta, jakina, azpimarratu nahi izan zen 12. egunetik aurrerakoa dela garrantzitsuen.

Behin eta berriz esan izan dugun moduan, Euskaraldia ez da izan 11 eguneko ariketa soziala soilik, baizik eta gure komunikazio ohituren ingu-

ruan hausnartu eta, ahal den neurrian, pitinka-pitinka, hizkuntza ohituretan aldaketa egiteko aitzakia bat. Gurean ere, datuek argi erakutsi dute jendea gogotsu zegoela; horren isla izan da Debako herritarren parte-hartzea.

Jakin badakigu Euskaraldian 16 urtetik gorako gizon-emakumeek eman zezaketela izena, eta hona hemen gure herriko datuek erakutsi digutena: 1.000 pertsona inguruk eman zuten izena. Horietatik, ehuneko 80 inguru *ahobizi* eta gainerako 20a *belarriprest* izan da. Bestalde, ehuneko 75 inguru emakumezkoa izan da eta gainontzeko ehuneko 25a gizonezkoa.

Datuak esanguratsuak diren arren, denok dakigu gure herrian bai *ahobizi*

eta bai *belarriprest* gehiago dagoela, beraz, 12. egunetik aurrerako aldarrikapena da horiek guztiak aktibatzea; pentsatzea eta sentitzea norbera gai dela, eta egunerokoan gutxika-gutxika lortzen direla helburu handiak, hau da, gurera ekarrita, euskara izatea komunikatzeko hizkuntza.

Euskara komunikatzeko hizkuntza izatea amets dugunontzat, ekimen honek erakutsi digu jendea prest dagoela. Eta benetan, Debako Euskaraldia Taldeak eskerrak eman nahi dizkie modu batean edo bestean parte hartu duten guztiei, eta bide horretan aurrera jarraitzera animatu!

*Debako Euskaraldia Taldea*



**11 egun, hamaika bizipen:**


**Ariketaren baitan bizipen ugari izan dituzte *belarriprest* eta *ahobiziek*: lorpenak, ezustekoak, zailtasunak... eta horietako asko [euskaraldia.eus](http://euskaraldia.eus) atarian jasota daude jadanik. Idatzi al dituzu zureak?**



**Eragina neurtzen:**

**Ekimenaren eragin zehatza hurrengo hilabeteetan ezagutuko dugu, egiten ari den ikerketari esker. Antolatzaileek diote 2019ko udan ezagutuko ditugula emaitzak.**

## Abenduaren 26tik 29ra bitartean egingo da Debako XI. Animazio Zinemaldia



Hutsik egin gabe dator aurten ere Animadeba animazio zinemaldia. Azken urteetako datak mantenduta, abenduaren 26tik 29ra bitartean egingo da aurtengo edizioa, hamaikagarrena, hain zuzen ere.

“Isla de perros” luzemetraiarekin abiatuko da jaialdia, abenduaren 26an (asteazkena), 19:00etan. Wes Andersonek zuzendutako filma da, AEBetan ekoiztua. Emanaldia Kultur Elkartearen izango da.

Biharamunean, hilaren 27an, alegia, Kultur Elkarteko liburutegian egingo da lehen hitzordua: “Puppet Workshop”. Naiara Gallegok eta Sergio Martinezek gidatuta, Stop Motion ikastaroa eskainiko da 10:00etan. Bertan, Stop Motion teknika animatzeko erabiliko den panpina eraikitzekeo trikimailu batzuk eza gutuko dituzte parte-hartzaileek; ekoizpen faseen errepasso bat egingo da, diseinutik, panpina artikulatuak set-ean antzeztu arte. 13 urtetik gorakoentzat antolatu da ekimena eta aurrez eman behar da izena, Turismo



bulegoan.

Ez da hor amaituko abenduaren 27rako prestatu den egitaraua. Izan ere, arratsaldeko 17:00etan, “Harpetarra” luzemetraia eskainiko dute Kultur Elkartearen. 19:00etan, berriz, IX. gortina lehiaketari dago-kion emanaldia izango da, Maxi tabernan. Eta, gauean, Gaztetxera iritsiko da Animadeba, 22:00etan proiektatuko den “Night is short, walk on girl” film luzearekin.

Abenduaren 28an (ostirala), bi emanaldi izango dira aukeran: “Friends, abentura munstroen uhartean” filma izango da ikusgai 17:00etan, Kultur Elkartearen. Eta, bi ordu beranduago, 19:00etan, “Loving Vincent” eskainiko dute Gaztetxean.

Jaialdiari amaiera emateko, abenduaren 29rako ere hainbat ekimen antolatu dira. Hasteko, animaziozko film laburrak izango dira protagonista, Kultur Elkartearen. 19:00etatik aurrera, lau lan izango dira ikusgai: “Invisible”, “En la luna”, “Miraila” eta “Patchwork” –solasaldia ere egingo da zuzendariekin–. Hitzordua borobiltzeko, gortina lehiaketaren sari banaketa eta amaiera ekitaldia egingo dira bertan. Bukatzeko, berriz, gaueko 23:00etan kontzertua izango da Maxi Tabernan: Dj Deu (WAS).

Jaialdiaren inguruko informazio gehiagorako: [www.animadeba.com](http://www.animadeba.com).



MAITANE ETXANIZ

### Hitz kosmetikoak

Edertasunaren morroiak garen egun hauetan, errealtate grisa ezkutatzekeo hizkuntza berri bat asmatu dugu. Hitz kosmetikoek magia egiten dute eta, goizetan gure begi zuloak estaltzeko erabiltzen ditugun kremek bezala, gure bizitza pixka bat eramangarriago bihurtzen dute.

Tarteka lan solteak eginez bizirauten dugula; ba *freelance*-ak garela esan eta listo. “Uber” bezalako plataformak erabiltzen ditugula, autonomo faltsuez osatuta daudenak; ba horri *ekonomia kolaboratiboa* deituko diogu eta bat-batean, kontzeptuari, elkartasunaren edertasuna emango diogu. Alokairu oso bat ordaintzeko dirurik ez dugula eta ezezagunekin partekatu behar dugula etxebizitza... *coliving*-a praktikatzen dugu! Ez al da askoz interesgarriagoa? “El País” egunkariak, 2017ko artikulua batean, asteburu guztia etxean pasatze-ari “*nesting*” deitu zion, eta gazte asko lasai geratu ziren, dirurik ez izan arren moda osasuntsu baten parte sentitu zirelako.

Baina badago hitz kosmetiko bat, bereziki beldurgarria iruditzen zaidana; *ARDURA*. Agintari eta politikoei “*arduraz*” jokatu behar dutela esaten duten bakoitzean bizkarretik izerdi hotza sentitzen dut. Izan ere, *ardura* horrek maiz ezkutatzen du herritarrei traizio bat, botere ekonomikoaren mesedetan. Arnasten dugun airea zikintzen duten gasen atzean, gerran dauden herrialdeei saltzen zaizkien armen atzean, migrazio politika hiltzaileen atzean... beti dago “*arduraz*” jokatu duen agintari bat. Ea noiz hasten diren, *arduraz* jokatu beharrean, gizatasunez jokatzeko.

## EZTEN GIRO ERROMERI TALDEA

**“Badirudi jendeak gustuko duela egiten duguna eta satisfazioa izugarria da”**

**Duela bost urte ezagutu genuen Ezten Giro Erromeri Taldea, eta harrezkero hamaika plazatan aritu da -herrian bertan ere, azken San Roke festetan, esate baterako-. Berriki, etnalditxo bat egin dute musikari gazteek, atsedean hartu, hausnartu eta erabaki bat hartzeko. Bada, argitu dute ez dituztela oholtzak utzi nahi; “Euskal Herriko plazak astintzen” segiko dute. Zuzenekoei heldu aurretik, baina, “familia handitu” behar dute -taldekide berri baten bila dabilta-. Ezten Giroren ibilbidea, oraina eta erronkak hizpide hartuta, Nagore Etxabe, Maialen Mujika eta Alaitz Escudero debarrekin aritu gara *Berriketan*.**

Sare sozialen bidez jakin dugu: “Ezten Girok Euskal Herriko plazak astintzen jarraituko du 2019an”. Erabaki zaila izan al da?

**Nagore Etxabe:** Urtero hartzen dugu atsedenditxoa bakoitzak berean irailari aurre egin diezaion. Kontua da talde batean lehenbait ezberdinak dituzten bizitzek bat egiten dutela. Normalean musika munduko profesionala izatea ez da aukeretakoa bat, lan honi ez zaiolako beharko lukeen garrantzirik ematen. Eta, beraz, taldeetan aldaketak egoten dira edo desegin egiten dira. Puntu horretantxe geunden gu, oholtzak utzi edo beste urtebetez jarraitu, barne-aldaketekin (taldekide berri baten bila dabilta).

**Maialen Mujika:** Nagoreekin ados.

**Alaitz Escudero:** Horixe bera. Bizitzan erabakiak hartu behar izaten dira, askotan zailak, baina hartu egin behar. Berdina ez da inoiz ere izango, baina batek daki, agian hobea! Ondo dakigu amaiera izango duen proiektua dela musika talde bat izatearena, baina oraindik ez da gure ueña iritsi. Musika gure pasioa denez, saltsan jarraitzea izan da azken erabakia.

2013ko otsailean aritu ginen zuekin *Berriketan* lehenbizikoz. Zelakoa izan da orain arteko ibilbidea?

**N.E.:** Oso polita. Kontzertu dezente eskaini ditugu. Urteak pasa ahala jende gehiagoren aurrean jotzeko aukera izan dugu, baita erritmoa jaitsi eta kontzertu bakoitza gehiago gozatzekoa ere.

**M.M.:** Bikaina. Gure burua hazten ikusi dugu.

**A.E.:** Norberak sortutako zerbait denean, norberak erditua, hain intimoa eta 6 urtez oraindik jarraitzeko gogoz gaudenean, ezin esan gaizki joan zaigunik. Erromeria eta trikitia berriz ere indartzen hasi ziren momentuarekin batera jaio ginela iruditzen zait. 40-60 kontzertu eman izan ditugu urtean, badirudi jendeak gustuko duela egiten duguna eta satisfazioa izugarria da.

**Zertan aldatu da taldea ordutik hona? Eta zertan ez?**

**N.E.:** Kontzertuen mailan eta gure jarreraren hobera egin dugula esango nuke; oholtza indar handiagoarekin zapaltzen dugula. Gure arteko giroan eta zoro-haizean, aldiz, ez gara asko aldatu!!

**M.M.:** Ni ez naiz hasieratik egon, baina sartu nintzenetik aurrerapauso handiak eman ditut oholtzako jarreran. Gure arteko harremana ez da aldatu.

**A.E.:** Gure arteko konplizitatea elkarrekin lehen akordeak jotzearekin batera nabaritu genuen eta ez dago aldatzerik! Erromeria tradizionalaren kutsuari eusten ere saiatu gara eta horretan jarraitzen dugu. Musikalki, ordea, hazi egin gara. Esperientziarekin asko ikasi dugu eta ikasten gabilta.

**Nortzuk osatzen duzue Ezten Giro?**

Gaur egun, oholtzetan aritzeko asmoz Alaitz Escudero Unanue (trikitia, ahotsa), Nagore Etxabe Etxabe (bateria, ahotsa) eta Maialen Mujika Aguirrezabala (baxua) gaude. Hala ere, beti izango dira familiako kide Maitane Unanue Gabirondo (panderoa, trikitia, ahotsa) eta Mirari Alkorta Lizaso (gitarra, ahotsa).

Orain familia handitu nahian gabilta, kide berriaren bila, gitarra jo eta abestu dezan. Ateak irekiak ditugu! (Kontakturako bideak: [eztengiro4@hotmail.com](mailto:eztengiro4@hotmail.com), Facebook-en Ezten Giro Erromeri Taldea edo 678071041/639025747 telefono zenbakiak.

## “Taldekide berria behar dugu, gitarra jo eta abestu dezan, eta hura topatu arte ez gara oholtzara igoko. Atsedena ondo etorriko zaigu indarrak hartzeko”



Zuetako batzuk bestelako proiektu musikal batzuetan ere bazabiltzate, ezta?

**N.E.:** Musika zaletasunak eta ikasteko grinak bultzatzen nau estilo eta giro ezberdinetan aritzera. Bestalde, musika munduan bizirauteko ia derrigorrezkoa da talde ezberdinetan aritzea. Proiektuetako batzuk: Hemengattun Erromeria, Frank Blackfield, Low Riders Banda, Joseba B. Lenoir, Rafa Berrio, Urko Menaia... Batzuek hor diraute eta beste batzuetan kolaborazio edo kontzertu jakin batzuetarako izaten da.

**M.M.:** Nagorekin oraindik izenik ez duen proiektutxo batean murgilduta nago, dagoeneko maketa grabatzen hasiak gara eta ea laster hasten garen kontzertuekin; Amasan Dudik-P taldeko “zuzendari” naiz; kantujiran esku-soinua jotzen dut...

**A.E.:** Badira 5 bat urte ni Kepa Junkera musikariarekin Sorginak izeneko proiektuan murgildua nabilela. Bi disko grabatu ditugu eta munduko txoko asko ezagutu: Espainia, Danimarka, Maroko, Suiza, Washington, Paris... Horrek musikari eta kultura ugari ezagutzeko aukera eman digu. Musikaz asko ikasi dut Keparekin, musika egiteko beste era bat, landuagoa, profesionalagoa. Badirudi hirugarren disko bat duela buruan. Irauten duen bitartean ezin aukerari joaten utzi!

Noizko Ezten Giroren zuzenekoak?

Taldekide berria topatu arte ez gara oholtzara igoko. Atsedena ongi etorriko zaigu indarrak hartzeko. Hala ere, jendeak jarraitzen du kontzertuetarako deitzen eta lotu ditugu batzuk datorren urterako. Espero ordurako kide berria aurkitu izana!

Zer nolako kantak abesten dituzue?

4 kanta egin genituen Euskadi Gazteko maketa lehiaketarako duela pare bat urte (<https://eztegiro.bandcamp.com>). Egia esan, ez ditugu gehiegi jo zuzenekoetan. Gehienetan “euskal klasikoak” jotzen ditugu: polka, balsa, *rantxerita-punka*, euskal dantzak...

Denak emakumeak eta euskaraz abesten... Propio hartutako erabakiak al dira?

**N.E.:** Denak emakume izatea ez da propio erabaki, hala suertatu zen. Kasualitate polita. Egia esan, aritu naizen taldeetan beti egon izan da eta dago beste emakumeren bat. Beraz, gauzak normalizatzen ari direla uste dut, eta kontuan hartu edo baloratu behar den gauza bat dela bai, baina berebiziko garrantzirik eman behar ez zaiola ere bai. Garrantzia musikari eman behar zaio.

Euskarari dagokionez, euskal munduari lotutako kantak izanik, gehienak euskaraz dira, bai. Baina baditugu batzuk erdaraz

edo bertsoen bat erdaraz dutenak ere...

**A.E.:** Ez dugu erabakia propio hartu, naturaltasunez sortu da, sortu gara. Horixe gara gu, emakume euskaldun musikariak, gustuko dugunak elkarrarazi gaituenak. Behin baino gehiagotan hartu izan gaituzte erreferentziatza eta harro egotekoa iruditzen zait, emakumeak ere plazetako nagusi izan gaitzake eta! Baina, zoritxarrez, bizi izan ditugu egoera deserosoak emakume izate hutsagatik. Itxuraz gizartea kontziente bihurtzen ari denean eta gaiaren lanketa egiten hasi garenean, hau jasan behar dugu. Zerbait ez doa ondo eta aldatu behar da, lehenbailehen! Ez gara oholtzara esposizio-ra igotzen, musika egitera baizik. Entzun gaitzazue, dantzatu, goxatu, zoratu gaitzue elkarrekin, baina errespetuz.

Zer eskatzen diozue urte berriari?

**N.E.:** Ez dadila aurrekoak baino kaskarragoa izan! Eta beldurrik gabe konkistatu dezala jendeak plaza: egin dezala dantza balantza hasieratik bukaeraraino!

**M.M.:** Disko berri bat! (*kar-kar-kar*)

**A.E.:** Osasuna, maitasuna, askatasuna eta musika munduko pertsona guztientzat! Eskatu duguna baino gehiago eman digu orain arte Ezten Girok, orain artean bezala jarraitzen badugu, zorionekoak gu!

## Erromeriaren oraina eta etorkizuna

**N.E.:** Gu hasi ginenean, betiko talde handiez gain (Egan, Tximeleta, Gozategi...) baziren gu bezalako talde berri txikiak, baina gaur gutxik jarraitzen dugu “asko” jotzen. Agian zorte pixka bat ere izan dugu, sekula ez zailgulo kontzerturik falta izan eta urtetik urtera deiak areagotzen direlako.

Duela urte batzuk bazirudien erromeria gorantz zetorrela, baina gaur egun ez dakit zer esan. Egia da jo dugun tokietan plaza bete egon dela eta jendeak estimatu gaituela, baina festak direnean soilik gertatzen da. Hala ere, erro-

meriak beti jarraituko du. Estimatu handiagorekin edo txikiagorekin, baina ez dut uste urte gutxiren buruan desagertu egingo denik.

**M.M.:** Lehen, erromeria trikitiarekin lotzen zen eta kanta mota batzuk jotzen ziren (rantxerak, balsak). Gaur egun, aldiz, trikitiak berak indar berria hartu du beste musika mota batzuetan eta jendeak gustuko du (Esne Beltza, Huntza, Gose). Nire ustez erromeriak badu bere publikoa eta estimatua da.

**A.E.:** Lehengo erromeria mantentzen duen plaza bakarrak jarraitzen du bizi-

rik, Aristerrazuk (Aia). Badirudi azken urteetan bertara doan gazte kopurua igo egin dela. Gu saiatzen gara kutsu horri eusten eta jendeak eskertu izan du, baina badakigu bere mugak dituela. Oso eremu txikiak ari gara eta hortik bizitzea ezinezkoa da. Mundua aldatzen doan bezala, jendea eta bizimodua ere bai eta hori musikan islatzen da. Hala ere, trikitiak etorkizuna duela iruditzen zait, egoera berrietara moldatzen dakiela erakutsi digulako (hortxe baitira Gose, Esne Beltza, Huntza...). Musika hiltzen den egunean, akabo!



## Gipuzkoako Foru Aldundiak dio martxoan zabalduko dutela oinezkoen pasabidea

Deba eta Mutriku batzen dituen zubia desmuntatu eta berreraikitze lanek aurrera jarraitzen dute. Tamaina handiko egitura osagarri metaliko bat jarri da zubi gainean, lehen eta hirugarren zutabeen gainean, uztailean kolapsatu zen gangari eusteko. Eta, orain aurreratu dutenez, oinezkoen pasabidea martxoan irekiko dute -Foru Aldundiak irailean adierazi zuen oinezkoentzako behin-behineko igarobidea azaroaren erdialderako egongo zela instalatuta-.

Denis Itxaso Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura diputatuak, Pedro Bengoetxea Debako alkatearekin eta Jose Angel Lizardi Mutrikuko alkatearekin batera, zubia egonkortzeko obrak bisitatu zituen joan den azaroaren 28an. Freyssinet enpresa ari da lanak egiten -Aldundiak larrialdiko prozeduraz kontratatuta-, hartara zubia eror ez dadin eta kontserbazioa eta errehabilitazioa bermatzeko.

150 urte baino gehiago dituen zubia uztailearen hasieran hasi zen hondoratzen. Denis Itxasok azpimarratu duenez, ezohiko obra konplikatu bat egin beharko dute zubia berreraikitzeke. Lanak egiteko erabiliko duten metodo berritzaileak, hain zuzen, zubi bat XIX. mendean zelan eraikitzen zen erakutsiko duela gaineratu du diputatuak.

“Obra oso konplexua da. Zubi horrek 150 urte baino gehiago ditu eta balio handia du ondare ikuspegitik. Beraz, finkatu egin behar da eta, hortik aurrera, harriak banan-banan muntatu, zenbatu eta gorde behar dira, eta zutabeak zimendatu; gero, berriro eraiki behar da zubia jatorrizko planoen arabera», azaldu du Itxasok.

Iñaki Peña ingeniariak azaldu duenez, orain zubi gainean ikus daitekeen egitura osagarri metaliko hori Debako ertzetik Mutrikuko ertzeraino joango da. “Egitura hori jarri ondoren, elemen-

tu metaliko batzuk botako dira gangen azpitik arriskuan dauden gangei eusteko, egitura osagarriaren laguntzarekin. Horren segurtasuna bermatu eta baldintzak egokiak direla egiaztatu ondoren, bi alboetarako sarbideak muntatuko ditugu, jendea pasa dadin».

### “Pazientzia” eskatu dute

Oinezkoen pasabidea martxoan irekiko dutela aurreratu dute orain. Joan den uztailearen 5etik itxita dago zubia oinezkoentzako, inguruko bizilaguentzat horrek dakartzan kalteekin. Egoera horren aurrean, Deba eta Mutrikuko alkateek “pazientzia” eskatu diete beste behin ere zubiaren alde bateko eta besteko herritarrei. Era berean, une honetan zubitik pasatzea oso arriskutsua dela gogorarazi dute.

Osterantzean, alkateak pozik agertu dira obraren garapenarekin: “Poliki, baina, lanak aurrera doaz”.

### Cardenas Fundazioak eta Debako Udalak V. literatur lehiaketa antolatu dute

Bosgarren urtez antolatu dute Udalak eta Cardenas Fundazioak Debako literatur lehiaketa. San Roke ermitari buruz idatzi beharko dute edizio honetako parte-hartzaileek, betiere 100 hitz baino gutxiago duten lanak aurkeztuz. Idatziak 2019ko martxoaren 17a (14:00) baino lehen aurkeztu beharko dira, Turismo bulegoan.

Bi modalitate egongo dira lehiaketan: euskarazkoa bata eta gaztelaniazkoa bestea, eta bi sari egongo dira jokoan sail bakoitzean: lehenengoa, 500 eurokoa; eta bigarrena, 200 eurokoa. Lanak paperean edo formatu digitalean aurkeztu ahal izango dira. Informazio gehiagorako edota oinarriak ikusteko: [www.deba.eus](http://www.deba.eus) ataria.

## Arrillaga eta Ibarrola mutrikuarrek irabazi dute nesken pala txapelketa

Aurten ere, Debako emakumezkoen pala txapelketa ahoz aho ibili da herrian. Aurtengoa zazpigarren txapelketa izan da, taldeko kide zen Maite Etxeberriari omenaldia egiten dion laugarrena. 22 bikote aritu dira lehian. Deba, Elgoibar, Mutriku eta beste txoko batzuetatik ere gerturatu dira Aldats pilotalekura, irailaren 27an abiatu zen txapelketa honetan parte hartuz; batzuk kantxan bertan eta besteak harmailetan, berotasuna eta animoak banatzen.

Kantxan fitxaje berriak, gazteak, etorkizun oparokoak, baita betikoak ere, hobetzeko gogoz, borrokari eutsiz eta giroa mantenduz. Irailetik azaroaren bukaerara bitartean 4 taldetan elkarren kontra jokatzeko aritu dira ostegun eta igandetan. Talde bakoitzeko lehenengo lau bikoteek final zortzirenak jokatu dituzte eta, eliminazio bitartez, finalera Eba Ibarrola-Idoia Arrillaga eta Maite Barruetabeña-Iratxe Barruetabeña bikote mutrikuarrak iritsi dira. Finala abenduaren 15ean izan zen. 3. eta 4. postuak jokatu ziren lehenengo, Yoli Mateos-Vanessa Ortueta eta Enara Gorostiza-Nerea Irusta bikote elgoibartarren artean, eta azkenean Gorostizak eta Irustak osatutako bikotea nagusitu zen (22-21).

Agurra dantzatu ondoren, finala jokatu zuten bikote mutri-



kuarrek. Leire Etxaniz pilotari ezagunak Ainize Agirrezabalarekin txukun egin zituen epaile lanak, eta ordu eta erditik gorako partida luze baten ondoren Ibarrola eta Arrillaga nagusitu ziren azken lehian, 22-20 emaitzarekin. Gustura hartu dituzte urdaiazpikoa, palak eta txapelak. Ederra itxura! Egia da azkenaldian txapelak ez zirela Debatik kanpo joaten, baina aurtengoan ibaiaren beste aldera eramane dituzte.

Txapelketari bazkari batekin eman genion amaiera, beti bezala giro alaiean. Aurtengo txapelketa, beraz, bukatu da eta hurrengo txapelketari begira jarriko gara jada. Hala ere, Debako Emakume Pilotariak bizirik jarraitzen du. Izango duzue gure berri!

*Debako Emakume Pilotariak*

## X. San Silbestrea, urteari agur esateko

10. edizioa izango du aurten Xtrem Taldeak antolatutako San Silbestre lasterketak eta, urtero legez, abenduaren 31n jokatu da, goiz partean.

Etxeko txikieneztat (4 eta 7 urte bitartekoak), 200 metroko lasterketa prestatu dute; 11:15ean emango zaio hasiera. 8 eta 10 urte artekoak ordu laurden beranduago (11:30ean) izango dute

euren txanda, 400 metroko lasterketa egiteko. Hirugarren hitzorduan (11:45ean) 11 eta 13 urte bitartekoak parte hartuko dute, 1.000 metroko proban. Eta nagusiek (14 urtetik gorakoak) bost kilometroko ibilbidea osatu beharko dute; 12:00etan hasiko da hitzordua (Turismo bulegoan eman behar da izena, 5 euro ordainduta).

## Indarkeria matxistaren kontrako aldarria

Beldur Barik lehiaketari dagozkion sariak banatu ziren joan den azaroaren 24an Agirre jauregian, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan. Hiru lan egon dira lehian edizio honetan; guztiak kategoria berean. "Ohitura txarrak" izenburuko lanak lortu du 1. kategoriako sari nagusia (100 euro). Maite Ramos, Malen Arakistain, Eider Perez, Nerea Sanz, Arantxa Odriozola, Aritz Aperribay eta Maria Perezek sortu dute ikus-entzunezkoa. Beste bi proposamenek 50 euroko saria eskuratu dute: "Beldur Barik 2018" (egileak: Intza Sudupe, Xabi Larrañaga, Pablo Ron, Elaia Oiartzabal, Eneko Arriola, Ander Azpiazu, Naroa Laka eta Ione Gomez) eta "Bide berri bat" (egileak: Olatz Matias, Maialen Gonzalez, Irune Ruiz eta Tsehainesch Egaña). Egun berean, baina gauean, hainbat film proiektatu zituzten Kultur Elkartearen eta, betiko legez, azaroaren 25ean elkarretaratzea egin zen Foruen plazan.

Abenduaren 16an, bestetik, haurrei zuzendutako ipuin kontaketa izan ziren, Debako kontalarien eskutik.





## Ipuin lehiaketari dagozkion sariak banatu dira Mendatan

**Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkartek antolatutako ipuin lehiaketak baditu irabazleak!**

**Sariak joan den abenduaren 3an banatu ziren, Euskararen Nazioarteko Egunean, hain justu.**

Euskararen Nazioarteko Egunean banatu ziren Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkartek elkarlanean antolatutako euskarazko ipuin lehiaketari dagozkion sariak. Bi sari banatu dira DBHko ziklo bakoitzean; ebook bat jaso dute opari kategoria bakoitzeko lehenengo saria irabazi dutenek, eta herriko liburu-dendetan erabiltzeko 60 euroko opari txartelak lortu dituzte bigarren saria eraman duten ikasleek.

Amets Carrillok, Nagore Dorronsorok eta Zuhatzako beste kide batzuek osatutako epaimahaiak hala erabakita, **lehen zikloan** (DBHko 1. eta 2. maila) Amalur Ponce nagusitu da, "*Bakardadea*" izenburuko idazlanarekin, eta bigarren saria Ainhoa Loidik lortu du, "*Euskara bihotzetik ezpainetara*" ipuinarekin.

**Bigarren zikloan** (DBHko 3. eta 4. mailan), berriz, Jon Loidik jaso du lehen saria, "*Euskararen Eguna Alemanian*" lanarekin, eta Garazi Garridoren "*Bai jauna*" ipuinak eraman du bigarren saria.

Aipatutako irabazleak goiko argazkian dituzue, Mendata ikastetxeko irakasleekin eta Zuhatza elkarteko Terese Larrañaga eta Iñaki Elosuarekin. Taldeko argazkia egin aurretik, idazlan



sarrituen pasarte batzuk irakurri zituzten egileek, sari banaketa ekitaldian bildutako gainontzeko ikasleen aurrean.

**Berriketan** aldizkarian argitaratuko dira lau ipuinak; ale honetan irakur dezakezue horietako bat eta gainontzekoak hurrengo aldizkarietan kaleratuko dira. Zorionik beroenak irabazleei eta irakurketa on guztioi!



**SUKIA**  
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



Jari zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

Zuhatza  
943 191 383  
berriketan@zuhatza.com





AMALUR PONCE  
(1. zikloko lehen saria)



## Bakardadea

Nire amak sarritan esaten dit egunerokoa idazteko, eta garrantzitsua dela nire adinean nire sentimenduak adierazten jakitea. Tira, aurkeztu egingo naiz, Uxue izena dut eta 15 urte ditut. Mutrikun bizi naiz. Nire lagunik onena Ugaitz da eta 15 urte ditu, nik bezala. Gauza da nire amarengatik nagoela hau idazten; horrela, hemendik pare bat urtera nire sentimenduak gogoratu ahal izango ditut. Orain ez nau konbentzitzen egunerokoa egiteko ideiak, baina behintzat aspertuta nagoenean zer egin jakingo dut.

Egia esan, nire bizitza ez da oso interesgarria, oporrak dira eta egunero joaten naiz hondartzara lagunekin. Normalean goizean hondartzara joaten gara eta arratsaldean kalera irten gara. Batzuetan, gauean ere joaten gara kalera. Egunero berdina egiten dugu, baina ez naiz aspertzen, oso ondo pasatzen dut lagunekin.

Orain, gaueko bederatzia dira eta ohean etzanda nago, asper-asper egin da. Bat-batean, nire mugikorrak jo egin duen arte. Mugikorra desblokeatu, Whatsappean sartu eta Ugaitzen mezuarekin topo egin dut: "Ze zabiz itxen? Zeure etxe parian noi". Zertan ari da Ugaitz nire etxe parean? Ziztu bizian zapatillak jantzi, mugikorra eta giltzak hartu, eta etxetik irten naiz. Portaletik atera eta, esan didan bezala, hortxe dago. Ez dakit zertan dagoen hor, baina ziur nago esan behar didana garrantzitsua dela.

-Epa! Zergatik zaude hemen?, esan diot.

-Ezetz asmatu zer gertatu zaidan!-. Ugaitz beti dago askakizunak esaten, baina orain nahiago dut

berak esatea zer gertatzen den, ez zen nire etxe parera etorriko ezergatik.

-Ugaitztxo, esan iezadazu, mesedez.

-Ba, mugikor bat aurkitu dut kalean!-. Uste nuena baino gauza sinpleagoa da, mugikor ziztrin batengatik etorri da? Ez dago mutiko hau ulertzen duenik...

-Eta zer nahi duzu nik egitea?

-Uxu, ez duzu ulertzen, mugikor honen jabeak laguntza behar du. Lagun askok Uxue beharrean Uxu deitzen didate, eta niri gustatzen zait.

-Laguntza?-. Liluratuta geratu naiz.

-Bai, laguntza. Etorri eta ikusi-. Ez dut ezer ulertzen.

-Txo, niri txantxarrik ez egin e!

-Ez, lasai.

Mugikorra poltsikotik atera duenean, mugikor ezaguna egin zait, buruari pare bat buelta eman eta nire ahizpa txikiaren mugikorra dela konturatu naiz. Orain dela pare bat aste galdu zuen bere mugikorra, baina ez zion garrantzi handirik eman; mugikor berria oparitu nahi zioten gurasoek, baina berak esan zuen ez zitzaiola axola eta mugikorrik gabe hobeto zegoela. Gure gurasoei arraroa iruditu zitzaien, baina Paula, nire ahizpa, ez da lagunekin asko egoten, nahiago du etxean geratu irakurtzen, eta gurasoei iruditu zitzaien ez zuela mugikorrik behar. Paulak 12 urte dauzka eta oso ondo konpontzen naiz berarekin.

-Ugaitz! Hori nire ahizparen mugikorra da, galdu zuen hura!-. Ez dut ulertzen nire ahizpak zergatik behar duen laguntza.

-Be-be-benetan?-. Bat-batean Ugaitz oso urduri jarri da.

-Zer gertatzen da?

Ugaitzek mugikorra eman dit. Nire ahizpak ez zeukan pasahitzik, erraza zen bere mugikorrean sartzea, baina

niri ez litzaidake gustatuko nire ahizpak nire mugikorra hartzea ezkutuan, horregatik inoiz ez diot hartu. Desblokeatu eta ez dut ezer arraroa ikusi, baina Whatsappean sartu naiz eta mezu hauek topatu ditut: "Hilko bazina fabore bat egingo zeniguke denei", "ez dituzu lagunak", "pringada hutsa zara". Ezin nuen hau sinetsi. Ez zait gustatzen jendeak ni negar egiten ikustea, baina orain berdin dit horrek, malkoak erori zaizkit, eta ez zait axola zeinek ikusten nauen.

-Ei, lasai. Hau dena konponduko dugu-. Ugaitz beti hor zegoen denerako, eta askotan eskertzen diot hori.

-Aurpegia txikituko diet nire ahizpari mina egin dietenei-. Oso amorratuta nago, ez dio inork gehiago minik egingo nire ahizpari.

-Ez, Uxu, hitz egiten konpontzen dira gauzak.

-Berdin dit nola konpontzen diren gauzak, min egin diote Paulari, hori ez diet bizitzan barkatuko. Ikusten ditudanean konturatuko dira ume moko horiek!

-Ez da beharrezkoa-. Ezin dut sinetsi. Hori Paularen ahotsa da. Gora begiratu, eta hor dago, balkoian.

-Paula, zergatik ez didazu esan? Laguntza behar zenuen, oso ausarta zara Paula-. Esan diot, oraindik negarrez.

Paula ziztu bizian behera jaitsi da besarkada bat ematera, eta hirurok besarkatu dugu elkar.

-Dena konponduko da, lasai-. Ugaitz, beti bezain positibo.

-Hiruron artean konponduko dugu-, esan dut nik. Paulak gehiegi sufritu du berak bakarrik.

-Maite zaituztet-. Eta berriro besarkatu dugu elkar, dena konponduko delakoan.



**ABENDUAK 16- URTARRILAK 7**

-Umeek egindako jaiotzen erakusketa, elizako klaustroan.

**ABENDUAK 22-URTARRILAK 4**

-XXIII. Gabonetako margo eta marrazki erakusketa, udaletxeko pleno aretoan.

**ABENDUAK 22, LARUNBATA**

-20:30. Hirulan taldearen erakusketa, Kultur elkartearen. Sarrerak aurrez jaso beharko dira.

**ABENDUAK 23, IGANDEA**

-10:00. Bisita gidatua: Flysch beltza. Informazio gehiagorako: [www.deba.eus](http://www.deba.eus).

**ABENDUAK 24, ASTELEHENA**

-8:00. Mendi ibilaldia: Itziar-Erlo-Azpeitia. Irteera: Itziaroko plazatik. Buelta lineako autobusean.  
-12:30. Olentzero eta Mari Domingiri ongietoria, plaza zaharrean. Ondoren, salda eta ogitarte-ko postua egongo da Foruen plazan.  
-16:30. Presoen aldeko Olentzeroa, plaza zaharretik. 19:30ean, "Orain presoak" argazkia plazan.

**ABENDUAK 26-29**

-Debako XI. Animazio Zinemaldia. Animadeba 2018. Informazio gehiagorako jo 11. orrialdera.

**ABENDUAK 28, OSTIRALA**

-15:30. Umeen Gabonetako Festa, Itziaroko frontoian. Lizarbe guraso elkartearen eskutik.  
-19:00. Ipuin kontaketa: "Mamuak eta beste auzokide batzuk", Nerea Ariznabarreta kontalariaren eskutik. Burugorri gainean. 14 urte artekoentzat.  
-19:30. Azken ostirala. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzeta, plazan.

**ABENDUAK 30, IGANDEA**

-11:30. "Deba Berdeago", Zuhaitz Eguna. Deba-natura Ingurumen Heziketa elkarteak antolatuta.

**ABENDUAK 31, ASTELEHENA**

-11:15-12:00. X. San Silbestrea, Foruen plazan.  
-13:30. Debako Musika Bandaren Gabon Zahar kontzertua, elizan.  
-19:30. Topa euskal preso politikoen alde, plazan.

**URTARRILAK 1-6**

-Urteberriko Idi Probak, Euskal Jolasen.

**URTARRILAK 4, OSTIRALA**

-19:00. Dokumental emanaldia: "Azken arnasa arte" eta liburu aurkezpena: "Amaren etxea", Jokin Urainen eskutik. Kultur Elkartearen.

**URTARRILAK 5, LARUNBATA**

-Zoro Feria. Egun osoko egitaraua antolatuko da.  
-19:00. Errege kabalgata, kaleetan zehar.

**URTARRILAK 12, LARUNBATA**

-10:00. Antzerki tailerra: "Eraldaketa antzestu, eraldaketa izan!", Xenki Berhok gidatuta. Itziaroko Andutz Biltokian.

**URTARRILAK 13, IGANDEA**

-Ipuin kontaketak, Agirre jauregian. 17:00etan: Haur Hezkuntzakoentzat / 18:00etan: LHkoentzat.

**URTARRILAK 19-21**

-San Sebastian deunaren jaiak Elorriagan.

**URTARRILAK 20, IGANDEA**

-8:30. Mendi irteera, Burdin Kurutz M.T. eta Luzarok antolatuta: Ernio (egun osokoa).

**Kooperazio taldearen denda**

-Urtarrilaren 6ra arte, Bidezko Merkataritza denda solidarioa zabalik dago Lersundiko kalean (31. zenbakian). Ordutegia: Lanegunak: 17:00-20:00 / Larunbat, igande eta jai egunetan: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

**Gurutze Gorriaren jostailu bilketa**

-Debako Gurutze Gorriak "Haien eskubideak jokoan" gabonetako bilketa bereziari ekin dio. Jostailu berriak bildu nahi ditu, zailtasunak dituzten familietako haurren artean banatzeko. Jostailuak ezingo dira sexistak edo belikoak izan. Bilketa Mugan dendan eta Debako Gurutze Gorriaren egingo da. Informazio gehiagorako: 664164638 / 629417146, [deba@cruzroja.es](mailto:deba@cruzroja.es) eta [deba.juguetec@cruzroja.es](mailto:deba.juguetec@cruzroja.es).

**Gabonetako ordutegia liburutegian**

-Ostolaza udal liburutegiak ordutegi berezia izango du abenduaren 24tik urtarrilaren 4ra. Liburutegi orokorra 9:00etatik 14:00etara egongo da zabalik eta haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

**Ikastaroak KZgunean**

-KZgunea itxia egongo da abenduaren 22tik urtarrilaren 1era. Goizeko ordutegia izango du urtarrilean eta hainbat ikastaro eskainiko dira bertan: sare sozialak 2.0, software librea... Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus) ataria.

**ZAINTZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **urtarrilak 4, 5, 6, 14, 15, 16, 17.**

Burgoa Zuazo: **abenduak 21, 22, 23, 31. urtarrilak 1, 2, 3, 18, 19, 20.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**

**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**

**Larunbat goizetan beti bat irekita:**

ZALDUEGI: urtarrilak 5 eta 12

BURGOA ZUAZO: abenduak 22-29 / urtarrilak 19

**9:30 - 13:00**

**Taxi Alain Deba**

www.alain.taxideba.eus

**636 135 008**  
alain@taxideba.eus

**ZERBITZUAK**

- ▶ Partikularrentzako zerbitzuak egunean 24 orduz
- ▶ Enpresentzako zerbitzuak egunean 24 orduz
- ▶ Aireportuetara joan-etorriak
- ▶ Ekitaldiatarako luxuzko zerbitzua

**EZAUGARRIAK**

- ▶ Larruzko eserleku berogarriak
- ▶ wifi-konexioa
- ▶ Android eta iOS gailuentzako kargagailuak



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



MARJE CASTRO IRIBAREN

MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarrak

25 URTEKO ESPERIENTZIA

DEBA

Tel.: 677 557 615

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
[mikeliturgintza@euskalnet.net](mailto:mikeliturgintza@euskalnet.net)  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

RAIKETAK S.L.  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

[sagarmina@sagarmina.com](mailto:sagarmina@sagarmina.com)  
[www.sagarmina.com](http://www.sagarmina.com)

**atari**

etxebizitza zerbiztu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jari zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzza

943 191 383  
[berriketan@zuhatzza.com](mailto:berriketan@zuhatzza.com)



**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**urlo**

SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitadeen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**G**

**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba



**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: [asketa@telefonica.net](mailto:asketa@telefonica.net)  
[www.asketa.net](http://www.asketa.net)

ALMACÉN:  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Empresa Registrada Nº 2 / 05 / 049  
NIVEL 2

**Uzuri**  
optika audio

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE ENTZUMENA  
ZAINTZEN**

Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/12



# BADATÓZ OLENTZERO ETA MARI DOMINGI EGUBERRI ON!



Abenduak 24, astelehena,  
12:30ean ongietorria  
plaza zaharrean.

Ondoren, salda eta  
ogitarteko postua  
Foruen Plazan.

## DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

*Euskararentzat bidea ez da  
erraza eta leuna;  
hala eta guztiz ere, argituko da  
noizbait bere etorkizuna.  
Hizkuntza dugu herriak duen  
benetako ondasuna;  
Urte Berriak dakarkiola  
geureari osasuna.*

*Eguberri zoriontsua  
eta urte berri on!*

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA  
Ifar Kalea, 12 – Tel.: 943 192 236  
DEBA

